



Fitxa teknikoa. *Txerritxo*. Arnold Lobel. Pamiela Kalandraka. 2009

Liburuaren aurkezpena

Txerritxo liburuan, xamurtasunez eta umorez azaltzen zaigu txerri baten istorioa. Izan ere, egun batean baserritar emazteak baserri osoa garbitzeko beharra sentitu eta guztia garbi-garbi eginda utziko du, txerritegia barne. Baina gure Txerritxok lokatz on biguna behar du bizitzeko eta atsekabetuta, hirira egingo du ihes, lokazti berrien bila. Baina bidaia ez da berak hasiera batean espero zuen bezalakoa izango eta abentura bat bestearen atzetik biziko ditu Txerritxok. Amaieran irakurleek ipuinaren atzean dagoen irakaspen garbia ezagutzeko aukera izango dute.

Nola kontatu

Txerritxoren abenturak zerikusi handia du edozein haurrengan bere gurasoekiko sortzen diren emozio eta sentimenduekin.

Eguneroko bizitzak ertz gogorak aurkezten dizkigu eta haien aurrean, zenbaitetan, ihesbidea aukeratzen dugu. Baina ihesbidea ere zenbaitetan infernu bilakatzen da, maitasunak bakarrik salbatzen gaitu.

Irakasleak behin eta berriz irakurri ondoren, ikasleen eskuetan utziko da liburua, haiek irakurketa autonomo bat egin dezaten.

Proposamenak bideratzen

Zenbaitetan gurasoek amorratu egiten gaituzte: garbiketak, ohera joan beharra, janariak... Zenbaitetan amesten dugu gurasoen etxea utzi eta bakarrik bizitzea...

Proposamenak zehazten

Aita eta amarekin haserretu zarela pentsatu eta etxetik alde egingo duzula.
Nora joango zinateke?